



## **Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bitzita guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# **Seniorrak eta unibertsitatean ikasten jarraitzea**

**77. dokumentua**

**2021eko maiatza**

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Ingurunekeo Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

## AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
1.2. Edukiak .....	3
<b>2. Seniorrak eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza.....</b>	<b>5</b>
2.1. Seniorrak eta lortutako ikasketa-maila .....	5
2.2. Seniorrak eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza .....	9
2.3. Unibertsitatean ikasten duten senior pertsonak.....	11
<b>3. Benchmarkina: unibertsitate-eskaintza eta seniorrak.....</b>	<b>13</b>
3.1. Senior pertsonentzako euskal unibertsitateen eskaintza .....	13
3.2. Senior pertsonentzako Estatuko unibertsitateen eskaintza..	15
3.3. Nazioarteko benchmarkina .....	17
<b>4. Ondorioak .....</b>	<b>20</b>
4.1. Laburpena: emaitza nagusiak.....	20

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak gero eta trebatuago dauden eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko prest dauden pertsonak ditu. Zeharkako gertaera hori agerian geratzen da senior pertsonen (55 urte eta gehiago) artean; izan ere, aurreko belaunaldiekin alderatuta, haien kualifikazioa nabarmen handitu da.

Gainera, kolektibo honetan biltzen dira, alde batetik, lan-merkatuan presentzia mantentzen dutenak, baina aldi berean, dagoeneko lanik egiten ez duen kolektiboa ere sartzen hasten da. Hori guztia denboraren erabilerari dagokionez aldaketa sozialeko testuinguruan gertatu da, bizitza osoko hazkunde pertsonalari lotuta era askotako jardueretan gero eta parte-hartzea handiagoa izanda. Jarduera horien guztien artean, "ikasten jarraitzearekin" lotutakoek gero eta garrantzi handiagoa dute.

Testuinguru horretan sortu ziren "adinekoentzako unibertsitatea" ekimenak. Gizarte-zientzietan eta giza zientzietan oinarritutako eskaintza da, eta ez dago lan-merkatura bideratuta. Beste nolabait esanda, aisialdiko ikasketa da.

## 1.2. Edukiak

Dokumentu honen bigarren kapituluan, senior pertsonen ikaskuntzan duten parte-hartzearen aurkezpena lantzen da, hiru ataletan oinarrituta:

- Lehenengo eta behin, Gipuzkoako senior biztanleriak (55-74 urte) lortutako ikasketa maila aztertzen da. Datuek emaitza interesgarriak erakusten dituzte bilakaerari dagokionez, eta agerian uzten du senior kolektiboak gero eta eragin handiagoa duela Gipuzkoako gizartean. Seguru asko, trebatzen jarraitzeko eskaria handitzea ekarriko du horrek.

- Bigarrenik, senior pertsonak bizitza osoko ikasketa-jardueretan izan duten parte-hartzea lantzen da (55 eta 74 urte arteko taldean oinarrituta). Adierazle horrek agerian utzi du talde horren zati handi baten kasuan, laneko merkatuko partaidetza-fasea gainditu ostean, motibazio pertsonalak eraginda ikasten jarraitzeko asmoa dutela.
- Amaitzeko, hirugarren blokeak senior pertsonak Adinekoentzako Unibertsitate Programen Estatuko Elkartek (AEPUM) argitaratutako informazioaren bidez unibertsitate-prestakuntza izan duten parte-hartzea jasotzen du.

2004an sortutako erakunde horrek biltzen ditu Espainiako unibertsitateek senior kolektiboari zuzenduta eskainitako programa gehienak. Ekimen horien helburua da prestakuntza eta kultura arloko garapena modu aktiboan bultzatzea.

Horrez gain, hirugarren kapituluak senior pertsonentzako unibertsitate-prestakuntza eskaintzen duten Euskadiko, Espainiako eta nazioarteko unibertsitate batzuen alderaketa jasotzen du, haien eskaintzari buruzko informazio zehatzarekin (titulazioak, sartzeko eskakizunak, iraupena, ikasketa-plana, jarduera osagarriak...). Honako hauek dira aukeratutako unibertsitateak:

<i>Euskal unibertsitateak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Euskal Herriko Unibertsitatea</li> <li>— Deustuko Unibertsitatea</li> </ul>
<i>Estatuko unibertsitateak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Valentziako Unibertsitate Politeknikoa</li> <li>— Nafarroako Unibertsitate Publikoa</li> <li>— Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa</li> </ul>
<i>Nazioarteko unibertsitateak</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Lavaleko Unibertsitatea (Kanada)</li> <li>— Neuchâteleko Unibertsitatea (Suitza)</li> <li>— Picardieko Unibertsitatea (Frantzia)</li> </ul>

- Amaitzeko, laugarren kapituluak labur-labur azaltzen ditu haien enplegarritasuna eta bizitza osoko gaitasun eta abileziak garatzea bultzatzeko helburuarekin senior biztanleriari zuzendutako unibertsitate-prestakuntzako eskaintzarekin eta kualifikazioarekin lotuta egindako azterketaren ideia nagusiak.

## 2. Seniorrak eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

### 2.1. Seniorrak eta lortutako ikasketak-maila

#### 2010-2019an, bikoiztu egin da erdi-goi mailako ikasketak dituzten seniorren kopurua

Ikasketak-mailari<sup>1</sup> dagokionez, Gipuzkoako senior biztanleriaren (55-74 urte) banaketak agerian uzten duenez, 2019an, hamar lagunetik ia bik dituzte erdi eta goi mailako ikasketak (% 17,8). Antzeko ehunekoak ditu lanbide-heziketa (% 18,2) edo bigarren mailako ikasketak (% 18,4) eta, amaitzeko, bi senior pertsonatik ia batek adierazten du lehen maila arteko ikasketak dituela (% 45,6).

#### 1. taula Gipuzkoako senior biztanleria, ikasketak-mailaren arabera

55-74 urteko biztanleria

	2010		2015		2019	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
<b>Ikasketak-maila</b>						
Lehen mailakoak	96.492	62,8	87.885	52,4	81.750	45,6
Bigarren mailakoak	23.576	15,4	32.046	19,1	32.960	18,4
Lanbide-heziketa	16.820	11,0	24.027	14,3	32.559	18,2
Erdi-goi eta goi mailakoa	16.689	10,9	23.702	14,1	31.885	17,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>153.577</b>	<b>100,0</b>	<b>167.660</b>	<b>100,0</b>	<b>179.154</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat.

Gainera, 2010etik 2019ra bitarteko emaitzek senior pertsonen taldeak lortutako ikasketak mailan aurrerapen handia erakusten dute<sup>2</sup> eta joera hori Gipuzkoako gizarte osoan ikus daitekeela esan daiteke.

<sup>1</sup> Pertsona baten ikasketak-maila egindako ikasketen edo abian dituen ikasketen maila altuena da, ikasketak horiek amaitu dituen, behin-behinekoak diren edo behin betikoz osatu gabekotzat jotzen diren kontuan izan gabe.


<sup>2</sup> 1970ean sartu zen indarrean Hezkuntzako Lege Orokor berria (1990ean LOGSE indarrean sartu zen arte egon zen hura indarrean). Hark ezarri zituen OHO, BBB-UBI, LH eta unibertsitate-ikasketak, eta etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko tituluak eta sartzeko sistemak. Aldaketa horrek, bereziki, 1960etik aurrera jaiotako eta 2019an gehienez 59 urte zituzten pertsonengan izan zuen eragina.

Hala, nabarmen gutxitu da lehen mailako hezkuntza dutenen taldea (-17,2pp), gainerako prestakuntza mailetara bideratu dena. Horien artean, azpimarratu beharrekoa da lanbide-heziketan (+7,2pp) eta erdi eta goi mailako ikasketetan (+6,9pp) izandako igoera. Hain zuzen ere, 2010 eta 2019 artean, kolektibo hori bikoiztu egin da eta 31.885 pertsonara igo.

### Senior biztanleria eraldatu egin da eta haien ikasketa-maila gero eta handiagoa da

Atxikitako grafikoak ikasketa-mailari dagokionez senior biztanleriaren egituran erregistratu den aldaketa erakusten du. Hala, oinarrizko ikasketak (lehen mailakoak) dituztenen taldea nabarmen gutxitu da, eta handitu ikasketa espezializatuak eta lan profesionaleko maila jakin batera bideratutako ikasketak dituztenen taldea (horiek lanbide-heziketakoak edo erdi edo goi mailako ikasketetakoak izan daitezke).

#### 1. grafikoa Gipuzkoako senior biztanleriaren banaketa, ikasketa-mailaren arabera



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat.

Bestela esanda, ez dira gazteak gero eta trebatuago dauden bakarrak (adin bereko iraganeko belaunaldiekin alderatuta); izan ere, aldaketa horrek senior pertsonetan ere eragina du eta haien prestakuntza maila altuagoa da. Ondorioz, ikasketa-jardueretan parte hartzen jarraitu ahal izateko beste era bateko eskaintza eskatzen dute.

Adin jakin bateko pertsonen prestakuntza mailan izan den aldaketa-progresio hori bistakoa da 2019an hamar urterako talde bakoitzak lortu duen ikasketa maila aztertzen bada. Hala, 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean, ia heren batek (% 30,3) ditu erdi edo goi mailako ikasketak, baina ehuneko hori % 22,4ra gutxitzen da 55 eta 64 urte artekoen artean, eta % 12,2ra 65 eta 74 urte artekoetan.

## 2. taula Gipuzkoako senior biztanleria adin-taldean eta ikasketak-mailaren arabera

banaketa (%) 55-74 urteko biztanleria


	Lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Lanbide-heziketa	Erdi-goi eta goi mailakoa	GUZTIRA
<b>2019</b>					
45-54 urte	26,9	13,6	29,1	30,3	100,0
55-64 urte	36,3	19,1	22,2	22,4	100,0
65-74 urte	57,0	17,6	13,2	12,2	100,0
<b>2010</b>					
45-54 urte	35,7	17,9	22,9	23,5	100,0
55-64 urte	54,8	18,3	13,7	13,1	100,0
65-74 urte	74,0	11,2	7,1	7,7	100,0
<b>Aldea (pp)</b>					
45-54 urte	-8,8	-4,3	6,3	6,8	-
55-64 urte	-18,5	0,7	8,5	9,3	-
65-74 urte	-17,0	6,4	6,2	4,5	-

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat.

Hau da, adinean aurrera egin ahala, gero eta prestakuntza maila handiagoa izango dute eta horrek bi ideia hauek sendotzen ditu: alde batetik, bizitza osoko ikasketak-tasak hazten jarraituko du senior kolektiboaren artean<sup>3</sup> eta, bestetik, gauza bera gertatuko da behar horri erantzuten dion eskaintzarekin, hasiera-hasieratik gero eta trebatuago dagoen kolektibora egokitu ahal izateko derrigor aldatu beharko baita.

## 2. grafikoa Goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituen senior biztanleria, adin-taldearen arabera. Gipuzkoa. 2010 eta 2019

goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketen %; 55-74 urteko biztanleria



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat.


<sup>3</sup> Lortutako ikasketak mailak gora egin ahala, handitu egiten da bizitza osoko ikasketak-tasa Gipuzkoako helduei egindako inkestetan egiaztatzen den moduan. Hurrengo atalean ikus daiteke emaitza hau.

### Baina, gainera, senior adineko kolektiboak nabarmen jarraituko du hazten

Gainera, nabarmen handituko da 55 eta 74 urte artekoen adin-taldea bi faktore direla eta: bizitza-itzaropenaren hobekuntza eta ugarienak diren belaunaldiak adin horretara iritsiko direla (60ko eta 70eko hamarkadetako baby boomean jaiotakoak).

Hala, atxikitako grafikoan ikus daitekeen moduan, adin-talde hau (55-74 urte) ugartuz joango da Gipuzkoan. 2020an 185,2 mila pertsonakoa da eta 211 mila pertsona baino gehiagokoa izatera igaroko da (proiekzio demografikoa, Eustat). Ondorioz, 2020. urtearekin alderatuta, igoera % 14,1ekoa eta 26,2 mila pertsona gehiagokoa izango da. Ikasketa-jardueren eskatzaile potentziala izango da biztanleria-taldea hau, motibazio profesionalari bakarrik lotuta daudenez harago joanda.

### 3. grafikoa Gipuzkoako senior biztanleriaren bilakaera eta proiekzio demografikoak



*Oharra:* 2020 arte, Biztanleen udal-errola (Eustat) eta, 2021etik aurrera, proiekzio demografikoen arabera egindako 2031ra arteko estimazioa.

*Iturria:* Biztanleen Udal Estatistika eta Proiekzio demografikoak, Eustat



## 2.2. Seniorrak eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

### Gipuzkoako hamar seniorretatik bik ikasten du eta profila gorakorra da

Bizitza osoko ikasketa-jardueretan Gipuzkoako senior biztanleriak duen parte-hartzeak agerian utzi duenez, 55 eta 74 urte arteko biztanleen % 22,8k ikasi du azken 12 hilabeteotan 2020an. Proporzio hori handiagoa da emakumeen artean (% 26,3) gizonezkoen artean baino (% 19,3).

Ikasketa formala<sup>4</sup> da senior kolektiboaren artean penetrazio txikiena<sup>5</sup> duena. Hala, kontuan izan behar da 55 eta 74 urte arteko pertsonen % 2,3k bakarrik hartzen duela parte prestakuntza arautuan. Emakumeen kolektiboak neurri handiagoan ikasten du (% 3,3, gizonen % 1,3ren aldean). Dena den, ikasketa-modalitate honen garrantzia txikia da.

Ikasketa ez-formalaren kasuan,<sup>6</sup> partaidetza handiagoa da; horrekin lotuta, kontuan izan behar da hamar seniorretatik bik adierazi duela 2020an modu ez-formalean ikasi izana (% 20,5). Era berean, azpimarratu beharrekoa da emakumezkoen partaidetza handiagoa dela gizonezkoena baino (% 23,0 eta % 18,0, hurrenez hurren).

### 3. taula Senior biztanleria eta bizitza osoko ikasketan duten parte-hartzea, sexuaren arabera. Gipuzkoa. 2014 eta 2020

ikasten duen 55-74 urteko biztanleriaren %

	Emakumea	Gizona	GUZTIRA
<b>2020</b>			
Etengabeko ikasketa	26,3	19,3	22,8
Ikasketa formala	3,3	1,3	2,3
Ikasketa ez-formala	23,0	18,0	20,5
<b>2014</b>			
Etengabeko ikasketa	19,1	18,3	18,7
Ikasketa formala	0,7	1,4	1,1
Ikasketa ez-formala	19,1	16,9	18,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneke Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

<sup>4</sup> Hezkuntza-zentroetan egindakoa eta ziurtagiri ofizialak lortzea ahalbidetzen duena.

<sup>5</sup> Egoera hori Gipuzkoako biztanleria helduaren artean ikus daiteke (25-74 urte). Etengabeko ikasketako parte-hartzea % 40,3ra igotzen da eta, aldiz, ikasketa formalaren kasua, ehunekoa % 8,3koa da.

<sup>6</sup> Arloren batean (zaletasunak ere izan daitezke) trebezia edo ezagutzak areagotzeko asmoz egiten da, baina ez dakar titulu edo ziurtagiri ofizial bat lortzea.

Era berean, bilakaerak erakusten duenez, 2014 eta 2020 artean, aztertutako hiru modalitateetan handitu egin da ikasketaren adierazgarritasuna: etengabeko ikasketa (+4,1pp), ikasketa formala (+1,2pp) eta ez-formala (+2,5pp). Dena den, emakumeen kolektiboa da parte-hartzearen igoera hori bultzatu duena, batez ere (+7,2pp, +2,6pp eta +3,9pp, hurrenez hurren). Aldiz, gizonezkoen kolektiboak profil egonkorragoa du (+1,0pp, -0,1pp eta +1,1pp).

Horrela, senior kolektiboaren artean bizitza osoko ikasketak duen adierazgarritasuna berresten da, joera gorakorrekin eta emakumeen parte-hartzea handiagoarekin.

### **Arrazoi pertsonalengatik ikasten da, eta ez ikasteko oztopoak ere pertsonalak dira (familia-erantzukizunak, motibaziorik eza, adina...)**

Gipuzkoako seniorren artean motibazio pertsonala da ikasteko arrazoi nagusia (% 58,0), arrazoi profesionalaren garrantzi txikiagoarekin (% 42,0). Banaketa hori emakumeek eta gizonek partekatzen dute, baina adin-taldeen arabera desberdina da: 65 eta 74 urte bitarteko pertsona guztiek arrazoi pertsonalengatik ikasten dute.

Bestalde, ikasteko oztopoen artean familia-erantzukizunak (% 32,6), motibazio-falta (% 30,0) eta adina (% 23,6) nabarmentzen dira, nahiz eta gizonen kasuan familia-erantzukizunen garrantzia txikiagoa izan (% 18,2, eta emakumeen artean % 48,2).

#### **4. taula Seniorren motibazioak eta oztopoak bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzeko, sexuaren arabera. Gipuzkoa. 2020**

55-74 urteko biztanleen %

	Emakumea	Gizona	GUZTIRA
<b>Ikasteko motibazioak<sup>1</sup></b>			
Arrazoi profesionalak	42,5	41,4	42,0
Arrazoi pertsonalak	57,5	58,6	58,0
<b>Ikasteko oztopoak<sup>2</sup></b>			
Familia-erantzukizunak	48,2	18,2	32,6
Motibaziorik eza	27,7	32,2	30,0
Adina, ikasteko zaharregia izatea	17,9	28,9	23,6
Nahikoa ezagutza izatea, ez dut ikasteko beharrik	8,0	15,7	12,0
Lan-ordutegiarekin bat ez etortzea	10,7	7,4	9,0
Garestia da, ezin dut ordaindu	4,5	2,5	3,4

<sup>1</sup> Ikaskuntza-jardueretan parte hartu duen biztanleriarekiko.

<sup>2</sup> Ikaskuntza-jarduerarik burutu ez duen biztanleriarekiko .


Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.3. Unibertsitatean ikasten duten senior pertsonak

Igo egin da unibertsitatean matrikulatutako seniorren kopurua eta bi heren emakumeak dira

Adinekoentzako Unibertsitate Programetako Estatuko Elkarteak (AEPUM) argitaratutako informazioaren arabera, 2018-2019 ikasturtean (datuak eskuragarri dauden azken urtea), Estatu osoan atxikitako 46 unibertsitatean matrikulatutako pertsonak, guztira, 63.173 dira. Gainera, bi adierazleek profil gorakorra dute; izan ere, kontuan hartu behar da 2009-2010 ikasturtean 36 unibertsitate eta 29.612 ikasle zirela.

### 4. grafikoa Adinekoentzako unibertsitate-programetan matrikulatutako senior ikasleak eta atxikitako unibertsitateak. Estatua




Iturria: Adinekoentzako Unibertsitate Programetako Estatuko Elkarteak

Unibertsitateko programa horietan parte hartzen duten pertsona gehienak emakumezkoak dira (gutzizkoaren bi heren, gutxi gorabehera) eta gizonen kolektiboaren presentzia nabarmen da txikiagoa. Gainera, joera hori egonkorra da informazioa eskuragarri dagoen aldi osoan. Hala, unibertsitate-prestakuntzan emakumeen presentzia handiagoa dela baieztatzen da. Hori bat dator bizitza osoko ikasketa-jardueretan emakumeek duten parte-hartze handiagorekin<sup>7</sup> (% 26,3 eta gizonen artean % 19,3).

<sup>7</sup> Xehetasun gehiagorako, ikus aurreko atala.

**5. grafikoa Adinekoentzako unibertsitate-programetan matrikulatutako senior ikasleak, sexuaren arabera. Estatua**



Iturria: Adinekoentzako Unibertsitate Programetako Estatuko Elkartea

**Informazio partziala euskal unibertsitateetako eskaintzan senior pertsonen parte-hartzeak (kolektibo horri zuzendutakoa) izan duen bilakaerari dagokionez**

Elkartean sartuta dagoen Euskadiko unibertsitate bakarra Deustu da eta senior kolektiboari zuzendutako bere prestakuntza-eskaintza Deustobide programaren bidez antolatzen du<sup>8</sup>. Azken ikasturte honetan, seniorrei zuzendutako jardueretan 1.208 pertsonak hartu dute parte eta kopuru hori 2011-2012 ikasturtean<sup>9</sup> parte hartu zutenena baino nabarmen da handiagoa (804 pertsona).

EHUren kasuan<sup>10</sup>, Giza Zientzien arloko titulazioa eskaintzen du eta, hiru campusen artean, 80 plaza ditu. Gipuzkoan, 25 plaza eskaintzen dira eta 2020-2021 ikasturtean, itxarote-zerrendan 38 pertsona geratu dira.

Bestalde, EHUK campusaren arabera adinekoentzako beste ikastaro batzuen eskaintza gehitzen du; Gipuzkoaren kasuan, 2020-2021 ikasturtean, guztira 14 izan dira.

<sup>8</sup> Bilboko campusera mugatuta dagoen eskaintza.

<sup>9</sup> Urte horretan egin zuen bat Deustuko Unibertsitateak Elkartearekin.

<sup>10</sup> [www.ehu.eus/es/web/gipuzkoako-esperientzia-gelak/cursos-universitarios-para-mayores-cum](http://www.ehu.eus/es/web/gipuzkoako-esperientzia-gelak/cursos-universitarios-para-mayores-cum)

# 3. Benchmarkina: unibertsitate-eskaintza eta seniorrak

## 3.1. Senior pertsonentzako euskal unibertsitateen eskaintza

Senior biztanleriari zuzendutako unibertsitate-eskaintza duten euskal unibertsitateak Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eta Deustuko Unibertsitatea dira. Lehenengoak Esperientziaren Gelen bitartez eskaintzen du ikaskuntza, eta bigarrenak, aldiz, Deustobideren bitartez, ikasi nahi duen edonori zuzendutako eskola.

Bi unibertsitateek unibertsitate-titulazio bat egiteko aukera eskaintzen dute gutxieneko ikasketen eskakizunik gabe<sup>11</sup>; horrela, unibertsitate-ingurunean, senior pertsonen garapen soziokulturala bultzatzen da. Helburua, horrenbestez, ez da lan-merkatura<sup>12</sup> sartzea, baizik eta kolektibo horri ezagutza eta kultura gerturatzea eta ikasten jarraitzeko haien eskaerari erantzuna ematea.

Eskainitako titulazioak giza eta gizarte-zientzien ingurukoak dira eta gai hauekin lotutako edukiak jasotzen dituzte: Historia, Literatura, Artea, Filosofia, Psikologia... Zehazki, eskainitako unibertsitate-tituluak Giza Zientzia (EHU) eta Kultura eta Elkartasun (Deustuko Unibertsitatea) arlokoak dira. Hain zuzen ere, ez dago zientziarekin eta teknologiarekin lotutako inolako eskaintzarik.

Gainera, bi euskal unibertsitateek jarduera osagarriak eskaintzen dituzte: adinekoentzako unibertsitate-ikastaroak (EHU) eta unibertsitateko kultura aisialdia (Deustobide). Hurrengo fitxetan, xehetasun osoz, jasotzen da euskal unibertsitateek senior kolektiboari zuzendutako prestakuntza-eskaintzaren edukia eta ezaugarriak:

<sup>11</sup> EHUren kasuan, beharrezkoa da 55 urte beteta izatea eta ez egotea lan-egoera aktiboan (erretiroduna, etxekoandrea edo antzekoa izatea). Aldiz, Deustobideren kasuan, ez dago adinarekin lotutako baldintzarik, baina prestakuntzaren edukia, batez ere, senior kolektiboari bideratuta dago.

<sup>12</sup> Tituluak ez du titulazio ofizialetara sartzeko edo jarduera profesionala egiteko ahalmenik ematen.

<b>Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). Esperientzia Gelak</b>		
<b>Titulazioa:</b> -Eskaintzen den tokia: -Iraupena: -Baldintzak: -Ebaluazioa: -Baliozkotasuna: Ikasketa-plana:	<b>Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua</b> 3 campus (Donostia, Bilbo eta Gasteiz) 4 ikasturte akademiko      Kreditu kop.: 135 kreditu      Plaza kopurua: 80 plaza <ul style="list-style-type: none"> <li>• 55 urte beteta izatea</li> <li>• Lan-egoera aktiboan ez egotea</li> </ul> Azterketak egin beharrik izan gabe gainditzen dira ikasturteak, baina ikasgai bakoitza gainditzeko eskolen % 80ra joan beharra dago, gutxienez. Ez da ofiziala. Ez du titulazio ofizial eta/edo jarduera profesioaletara sarbiderik ematen	
	<b>1. lauhilekoa</b>	<b>2. lauhilekoa</b>
1. ikasturtea	-Historia unibertsala I -Artearen historia I -Musikaren elementuak +Hautazko 1 ikasgai	-Hizkuntza eta literatura I -Psikologia -Osasuna eta ariketa fisikoa +Hautazko 1 ikasgai
2. ikasturtea	-Historia unibertsala II -Artearen historia II -Hizkuntza eta literatura I +Hautazko 1 ikasgai	-Euskal kultura -Gizartea, zientzia eta teknologia -Elikadura eta osasuna +Hautazko 1 ikasgai
3. ikasturtea	-Historia unibertsala III -Artearen historia III -Egungo kultur egoerak +Hautazko 1 ikasgai	-Hizkuntza eta literatura II -Pentsamendu ekonomiko-politikoak -Geografia eta ekologia +Hautazko 1 ikasgai
4. ikasturtea	+Hautazko 3 ikasgai	+Hautazko 3 ikasgai
<b>Beste ikasketa batzuk</b> -Baldintzak: -Eskaintza:	<b>Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI)</b> Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua izatea <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluko hautazko ikasgaiak</li> <li>• EHUko gradu ofizialetan eskainitako ikasgaiak</li> </ul>	

Web esteka: <https://www.ehu.es/eu/web/gipuzkoako-esperientzia-gelak/aukezpena>

<b>DeustoBide, Deustuko Unibertsitatea. Herritartasun Eskola</b>		
<b>Titulazioa:</b> -Hasiera: -Eskaintzen den tokia: -Baldintzak: -Baliozkotasuna: -Ikasleen profila: Ikasketa-plana:	<b>Kultura eta Elkartasuneko unibertsitate-titulua</b> 1999tik Bilbo      Iraupena: 3 ikasturte akademiko Bat ere ez; interesa duen edonor. Baina eskaintza senior kolektiboari zuzenduta dago Ez da ofiziala. Ez du titulazio ofizial eta/edo jarduera profesioaletara sarbiderik ematen 69 ikasle      } <ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeak (% 65,2)</li> <li>• 65 eta 69 urte artean (% 43,3)</li> </ul>	
	<b>1. seihilekoa</b>	<b>2. seihilekoa</b>
1. ikasturtea	-Lan intelektualerako teknikak -Inguruaren azterketa +Hautazko 2 ikasgai	-Aisia eta bizi-kalitatea -Giza komunikazioa +Hautazko 2 ikasgai
2. ikasturtea	-Espazioa eta gizartea -Giza garapena +Hautazko 2 ikasgai	-Giza eskubideen giltzak -Balioak, arrazoinamendua eta sormena +Hautazko 2 ikasgai
3. ikasturtea	-Artea ulertzeko eta gozatzeko gakoak -Erabateko osasuna +Hautazko 2 ikasgai	-Kultura eta kristautasuna -Etika eta giza prestakuntza +Hautazko 2 ikasgai
<b>Beste ikasketa batzuk:</b> -Deskribapena: -Iraupena: -Baldintzak: -Parte-hartzea:	<b>Kultur Aisia Unibertsitatean</b> Sormena bultzatzea eta kultur aukerak zabaltzea helburu duten ikastaro monografikoak, artea, literatura, historia, filosofia, ekonomia eta abar oinarri hartuta. Astean 1,5 ordu Bat ere ez; interesa duen edonor 807 ikasle (azken ikasturtean)	

Web esteka: <https://www.deusto.es/cs/Satellite/socialesyhumanas/es/deustobide>

### 3.2. Senior pertsonentzako Estatuko unibertsitateen eskaintza

Ugari dira Estatuan senior kolektiboari zuzendutako prestakuntza eskaintzen duten unibertsitateak<sup>13</sup>, baina azterketarako aukeratu direnak Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (ibilbidea), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (gertutasuna) eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa (STEM elementua) dira. Hala, nabarmendu beharrekoa da eskaintza bat datorrela, neurri handi batean, euskal unibertsitateek egindakoarekin. Unibertsitateko bizitzan parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei zuzenduta dago eta izaera dibulgatzailea eta kulturala ditu, balio ofizialik gabe:

- Senior diplomatura (Valentziako Unibertsitate Politeknikoa)
- Gizarte eta Giza Zientzietan Diploma (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- Zientzia, Teknologia eta Gizartean Diploma (Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa)

Kasu horietan guztietan, lan profesionalerako gaikuntza eskaintzen ez duten ikastaroak direla zehazten da. Edukiak zehatz aztertu gabe, honako hauek aipa ditzakegu:

- Guztiek eskaintzaren zati bat partekatzen dute, bereziki, gizarte-zientzietako edukiei dagokienez, batez ere, historia eta arteari lotuta.
- Baina ñabardura interesgarri batzuk ere aipatu beharrekoak dira:
  - Valentziako Unibertsitate Politeknikoak eduki zientifikoren bat edo beste eskaintzen du, astronomiarekin eta astrofisikarekin, eta matematikaren historiarekin lotuta.
  - Nafarroako Unibertsitate Publikoak, aldiz, aro garaikideari buruzko gaiak jasotzen ditu eta, gainera, baita zientziari buruzko ikastaro espezifiko batzuk ere (eguneroko bizitzari buruzko zientzia, biologia).
  - Kataluniako Unibertsitate Politeknikoak, besteak beste, gai hauek ezagutzeari eta ulertzeari buruzko edukiak eskaintzen ditu: matematika eta fisika, kimika edo elektrizitatea eta aldaketa soziala eta kulturala.

<sup>13</sup> <http://envejecimiento.csic.es/documentacion/varia/programas-universidad-mayores.html>

<b>Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (UPV). Senior Unibertsitate Saila</b>			
<b>Titulazioa:</b> -Hasiera: -Eskaintzen den tokia: -Baldintzak: Ikasketa-plana:	<b>UPV Senior Diplomatura</b> 1998tik Verako campusa (Valentzia) 55 urte beteta izatea	<b>Iraupena:</b> <b>Baliozkotasuna:</b> <b>Ikasgaiak</b>	3 ikasturte akademiko Ez da ofiziala
1. ikasturtea	-Elikadura, nutrizioa eta osasuna. Dieta mediterranea. -Ardoaren ezagutza -Valentzia hiria arkitektura -Lorezaintzako eta flora apaingarriaren inguruko hastapenak		-Kutsadura eta ingurumena -Kimika gure eguneroko bizitzan -Musika klasikoa: jatorriak eta bilakaera -“Seniorrak eta kirola”
2. ikasturtea	-Publizitate-komunikazioa -Valentzia hiria arkitektura -Valentziako artearen historia -Giza bilakaeren hastapena. -Astronomiaren eta astrofisikaren hastapenak		-2030eko agenda eta garapen jasangarriaren helburuak -Elikadura, elikagai tradizionalak eta agroekologia -Paisajismo garaikidea
3. ikasturtea	-Etorkizuneko zientzia eta teknologia: eta horrek bizitza nola erraztuko digun -Astrofisika modernoa -Elikadura osasungarriko elikadura-sistema jasangarriak -Matematikaren historiaren hastapena -Akuikultura eta arrantza -Argiaren interakzioa eta kimika XXI. mendean		
<b>Beste ikasketa batzuk:</b> -Hauetaz zuzenduta: -Eskaintzen den tokia: -Eskaintza:	<b>Ikastaro monografikoak</b> UPVko Senior Diplomaturako titulua duten ikasleak; diplomaturarekin batera ere egin daitezke. UPVko 3 campus (Vera, Alcoi eta Gandia) • Artea, historia, psikologia, zientzia, teknologia...		

Web esteka: <http://www.upv.es/entidades/AUS/indexc.html>

<b>Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA). Esperientziaren Gela</b>			
<b>Titulazioa:</b> -Eskaintzen den tokia: -Iraupena: -Baldintzak: Ikasketa-plana:	<b>Diploma Giza eta Gizarte Zientzietan</b> Iruñeko eta Tuterako campusak 4 ikasturte akademiko 50 urte beteta izatea	<b>Kreditu kop.:</b> 120 kreditu <b>Baliozkotasuna:</b> Ez da ofiziala	<b>Plaza kopurua:</b> 75 plaza
	<b>1. seihilekoa</b>	<b>2. seihilekoa</b>	
1. ikasturtea	-Kulturaren eta Arteen Teoria -Antzinaroko Zibilizazio handiak -Pentsamendu klasikoa -Europaren eraketa -Antzinako Artea eta Erdi Arokoa	-Zuzenbiderako Sarrera -Ekonomiarako Sarrera -Politika eta Gizarterako Sarrera -Geografia Deskribatzailea -Espainiar Hizkuntza	
2. ikasturtea	-Arte Modernoa -Nafarroako Erresumaren Historia -Historia Modernoa -Literatura Modernoa -Pentsamendu Politiko Modernoa	-Antropologiaren Gaiak -Eguneroko bizitzako zientzia -Psikologiaren Gaiak -Zientziaren eta Teknikaren Historia -Hizkuntza eta gizartea	
3. ikasturtea	-Politika eta Gizartea Espainia Garaikidean -Arte Mugimendu Garaikideak -Literatura Garaikidea -Ideologia Garaikideak -Musika klasikoa	-Arazo Soziologiko Garaikideak -Sistema Politiko Garaikideak -Etika Politiko eta Sozialaren Gaiak -Biologiaren Gaiak -Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua	
4. ikasturtea	-Espainiako Historia Garaikidea -Nafarroako Historia Garaikidea -Hispaniar Literatura Garaikideak -XX. mendeko musika -Gaurko Pentsamendu Korronteak	-Europar Batasuneko instituzioak -Gizarte Mugimenduak eta Hedabideak -Zuzenbidearen Gaurko Gaiak -Ekonomiaren Gaurko Gaiak -Osasun, Lan eta Aisialdiaren Gaurko Gaiak	
<b>Beste ikasketa batzuk:</b> -Deskribapena: -Eskaintzen den tokia: -Eskaintza:	<b>“Etengabeko prestakuntza” programa</b> Interesdun guztiei zuzendutako ikastaro monografikoak Tuterako campusa • 30 orduko ikastaro hedakorrak (diplomaturako ikasgaiak) • 12 orduko ikastaroa: Prado Museoa gordetako bildumen azterketa		

Web esteka: <https://www.unavarra.es/aula-experiencia/?languageld=100001>



<b>Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa (UPC)</b>		
<b>Titulazioa:</b> -Eskaintzen den tokia: -Iraupena: -Baldintzak: -Baliozkotasuna: -Parte-hartzea: Ikasketa-plana:	<b>Zientzia, Teknologia eta Gizarte gaietako goi mailako diploma</b> Terrassako Ingeniaritza Industrial, Aeroespazial eta Ikus-entzunezkoetako Goi Mailako Eskola 3 ikasturte akademiko 55 urte beteta izatea Ez da ofiziala 200 diplomatu 12 urtetan (urtean 16-18 plaza)	
	<b>1. seihilekoa</b>	<b>2. seihilekoa</b>
1. ikasturtea	-Giza portaera -XXI. mendeko mundu mailako gizarteak -IKTen inguruko hastapenak	-Mundu garaikidea -Matematika ezagutzea eta ulertzea -Historia arloko zientzia eta teknologia
2. ikasturtea	-Elektrizitatea eta aldaketa sozial eta kulturala -Ekonomia eta Zuzenbidea -Osasuna eta Elikadura	-XX. mendeko abangoardia artistikoak -Teknologia eta jasangarritasuna -Kataluniako literatura
3. ikasturtea	-Filosofiaren historia - Musika eta Gizarterako Sarrera -Begitik garunera	-Fisika eta kimika -Giza geografia -Zinema, arte eszenikoak eta jazz
<b>Beste ikasketa batzuk:</b> -Eskaintzen den tokia: -Eskaintza:	<b>Seniorrentzako Unibertsitate Hedapeneko Gelak</b> Baix Llobregateko campusa Etengabeko prestakuntza zientziarekin eta teknologiarekin, artearekin, ekonomiarekin, filosofiarekin, historiarekin, ingurumenarekin, medikuntzarekin, zuzenbidearekin eta abarrekin lotutako hainbat diziplinari buruzko konferentzien bidez.	

Web esteka: <https://diplomasiunior.eseiaat.upc.edu/ca/presentacio>

### 3.3. Nazioarteko benchmarkina

Estatutik kanpo, senior pertsonentzako prestakuntza eskaintzen duten unibertsitateek era askotako izenak dituzte. Ohikoena hirugarren adineko unibertsitatea<sup>14</sup> eta adin guztietako unibertsitatea<sup>15</sup> da. Konferentzien, tailerren, ikastaro laburren eta abarren bidez, ez dute unibertsitate-titulu bati lotutako edo modu espezifikoan senior biztanleriari zuzendutako prestakuntza-eskaintza jasotzen.

Horixe da, adibidez, Lavaleko Hirugarren Adineko Unibertsitatearen<sup>16</sup> (Kanada) eta Neuchâteleko Hirugarren Adineko Unibertsitatearen<sup>17</sup> (Suitza) kasua. Gai ugari (historia, filosofia, artea, literatura, musika, geografia, informatika, zientzia eta abar) buruzko konferentziak, ikastaroak eta tailerrak eskaintzen dituzte. Lehenengoa 50

<sup>14</sup> 50 urteko ta gehiagoko edo, zenbaitetan, 60 urteko edo gehiagoko pertsonen zuzenduta egoten da.

<sup>15</sup> Prestakuntza-eskaintza ez dago adinaren arabera mugatuta eta ikasi nahi duen edonorentzat irekita dago, haren adina eta/edo hezkuntza maila edozein izanda ere.

<sup>16</sup> <https://uta.ulaval.ca/>

<sup>17</sup> <https://www.unine.ch/u3a/home.html>

urteko eta gehiagoko pertsoneri zuzenduta dago, eta bigarrena 60 urteko eta gehiagoko kolektiboari. Programazioa sei hilabetekoa izan ohi da (astean 2 edo 3 ordu). Bestalde, Frantziako unibertsitateetatik egindako eskaintzak antzeko programazioa jasotzen du, baina adin guztietako pertsoneri zuzendutakoa da. Horixe da, adibidez, Picardieko Adin Guztietako Unibertsitatearen<sup>18</sup> kasua.

Beste nolabait esanda, "aisialdiko" edo "adin guztietako" unibertsitate hauek unibertsitateko prestakuntza senior pertsoneri (eta senior ez direnei) gerturatzeko die bitzta osoan ikasketak bultzatzeko eta haien gaitasun eta ahalmenak garatzeko tresna gisa. Horretarako, unibertsitate-ingurune batean, programazio malgua eta irisgarria (gutxieneko ikasketen eskakizunik gabea) eskaintzen dute, baina ez du titulu akademikoa lortzea ahalbidetzen eta, hortaz, ez daude lan profesionalera bideratuta.

Horrek ez du esan nahi unibertsitateek senior kolektiboari beren ateak ixten dizkietenik; hain zuzen ere, ekimen horren helburua, adina edozein izanda ere, unibertsitate sarbidea izan nahi duenak horretarako aukera izatea da. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrezkoa da Frantziako unibertsitate batzuek proposatzen duten ekimena; izan ere, unibertsitate sartzeko eskatutako titulaziorik ez duten pertsonen "auditeur libre"<sup>19</sup> gisa sartzeko aukera izaten dute. Estatus horri esker, eskoletara joateko eta unibertsitateko liburutegira sartzeko aukera dute (bi zerbitzu horiek murrizketaren bat dute), baina ezin dute lan praktikoetan edo tutoretzapekoetan parte hartu ez eta azterketetara aurkeztu; beraz, prestakuntzaren amaieran ez da unibertsitate-titulurik lortzen.

Gainera, eta goi mailako irakaskuntza-sistemara sarbidea edo "berriro lotzea" ahalbidetzeko asmoz, Frantziak beste bi prozedura ditu. Horien bidez, pertsonen esperientzia profesionalaz baliatuta, ikasketekin aurrera jarrai dezakete (VAP), edo goi mailako irakaskuntza-titulu baten zati bat edo titulu osoa (VAE)<sup>20</sup> lortu:

- **VAP (Validation des Acquis Professionnels - Eskuratutako Ezagutza Profesionalen Balidazioa):** Unibertsitate sartzeko beharrezko titulaziorik ez bada, titulazio baliokidea lortzeko aukera ematen du prozedura honek (VAP izenekoa). Ziurtagiri hori aukeratutako *Unibertsitateko Baliokidetzaren Zerbitzuari* eskatu behar zaio eta

<sup>18</sup> <https://www.u-picardie.fr/formation/formation-professionnelle-continue>

<sup>19</sup> <https://www.u-paris2.fr/fr/auditeurs-libres>

<sup>20</sup> <https://www.enseignementsup-recherche.gouv.fr/cid21066/la-validation-des-acquis-dans-l-enseignement-superieur-v.a.e.-et-vap-85.html>

epaimahai batek erabakitzen du pertsona horrek nahi duen prestakuntza izena emateko behar adina esperientzia profesional duen. Horretarako, haren lan-ibilbidea (soldatapekoa edo ez), lorpen pertsonalak eta bizitza profesionalean egindako prestakuntza-ikastaroak hartzen dira kontuan.

- **VAE (Validation des Acquis de l'Expérience - Esperientzia bidez Eskuratutako Ezagutzen Balidazioa):** Titulu bat osorik edo haren zati bat lortzeko aukera eskaintzen du. Horretarako, lortu nahi den titulazioaren edukiarekin zuzeneko lotura duen esperientzia profesionala frogatu behar izaten da.

Bi sistema horiek aldi berean erabil daitezke prestakuntza-ibilbidea mozteko eta pertsonak beren ikasketa ez-formalak eta informalak kapitaliza ditzaten. Hala, haien aurrerapen profesionala bultzatu eta pertsonentzako denbora eta kostua gutxitzen da.

Bestalde, badago ingeniarietzako esperientzia profesionala balioztatzeko beste prozedura bat ere. Horri esker, ingeniari-titulua eskura dezakete Estatuak ziurtatuta epaimahai akademikoek eta epaimahai nazional batek ebaluazio bikoitza egin ostean. Kasu horretan, hautagaiek, gutxienez, 35 urte eta ingeniaritzan bost urteko esperientzia profesionala izan behar dituzte.

# 4. Ondorioak

## 4.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Azken kapitulu honek senior biztanleriaren kualifikazioari eta kolektibo honi zuzendutako unibertsitate-eskaintzaren inguruan egindako azterketaren ideia nagusiak jasotzen ditu.

### Senior biztanleriaren kualifikazioa

- 2019an, Gipuzkoako 55-74 urteko hamar lagunetik lauk ikasketa espezializatuak zituen; prestakuntza orokorraren proportzioa handiagoa zen (% 64,0).
- 2010-2019 artean, seniorren kualifikazioak gora egin du, eta bikoiztu egin da erdi eta goi-mailako ikasketak dituen kolektiboa (16.689 pertsonatik 31.885era).
- Gainera, biztanleriaren zahartze-faktorearen ondorioz, seniorren kolektiboak nabarmen hazten jarraituko du hurrengo urteetan.

### Senior biztanleria ikaskuntzari lotuta mantentzen da

- 2020an, haman seniorretatik bik ikasten dute eta ikaskuntza ez-formala nagusitzen da formalaren aurrean (% 20,5 y % 2,3, hurrenez hurren). Profil gorakorra, batez ere emakumeen artean.
- Senior pertsonak ikasten dute, aisialdiko jarduera gisa eta beren ezagutzak hobetzeko nahi pertsonalari erantzuteko.
- Ez ikasteko oztopoak baldintza pertsonalei dagozkie, hala nola familia-erantzukizunak, motibaziorik eza eta adina.

### Unibertsitatean ikasten ari diren senior pertsonak

- Ugaritu egin da unibertsitatean matrikulatutako senior ikasleen kopurua<sup>21</sup> Estatu mailan zein euskal unibertsitateetan<sup>22</sup>.
- Estatu osoan atxikitako 46 unibertsitateetan, matrikulatutako ikasleak 63.173 dira guztira.
- Parte-hartzaileen bi heren emakumezkoak dira; gizonezkoen kolektiboaren presentzia nabarmen da txikiagoa.

### Senior kolektiboari zuzendutako unibertsitate-eskaintzaren benchmarkina

- Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak senior kolektiboari zuzendutako prestakuntza-eskaintza dute: giza eta gizarte-zientzietan unibertsitate-titulazioak eskaintzen dituzte, gutxieneko ikasketen eskakizunik gabe, baina balio ofizialik eta/edo enplegurako orientaziorik gabe.
- Estatuko unibertsitateen eskaintza bat dator, neurri handi batean, euskal unibertsitateek eskaintzen dutenarekin. Unibertsitatean parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei zuzenduta dago eta izaera dibulgatzailea eta kulturala ditu. Kasu batzuetan, STEAM gaiei lotutako edukiak eskaintzen dituzte.
- Nazioarteko benchmarkinak pertsonen (senior izan ala ez) ikasketa bultzatzera zuzendutako eskaintza jasotzen du; konferentzia, tailer eta ikastaro laburrak dira nagusi eta programazioa malgua, irisgarria eta dinamikoa da, adin guztietako pertsoneri bideratuta. Ez dute titulurik ematen eta ez daude enplegura zuzenduta.
- Frantziaren kasuan, ekimen hauek nabarmendu behar dira:
  - "Auditeur libre": unibertsitatera sartzeko aukera eskaintzen die (eskoletara joan, liburutegira sartu) eskatutako titulaziorik ez duten pertsoneri. Dena den, ez du lan praktikoak egiteko edo azterketetara aurkezteko aukerarik ematen; hortaz, prestakuntza amaitzean, ez da unibertsitate-titulurik lortzen.
  - Gaitasun profesionalak balioztatze sistemak: esperientzia profesionala eta eskuratutako ezagutzak balioztatze prozedurak dira (titulu oso bat edo haren zati bat lortzeko aukera jasotzen dute). Goi mailako irakaskuntza-sistemara sartzen edo "berriro hari lotzen" laguntzen du.

<sup>21</sup>AEPUMera atxikitako unibertsitateek eskainitako adinekoentzako unibertsitateko programetan.

<sup>22</sup> Deustuko Unibertsitatea; Deustobide programa: 1.208 ikasle.

Izenburua:	Seniorrak eta unibertsitatean ikasten jarraitzea 77. dokumentua, 2021eko maiatza
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila Gipuzkoako Foru Aldundia
Lanketa:	IKEI, research & consultancy S.A.
Informazio iturriak:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Saila (GFA), Eustat, Adinekoentzako Unibertsitate Programetako Estatuko Elkarte eta aztertutako unibertsitateen webguneak